

ABIZENAK

Aretzederra: Gamiz'en dago etxe bat izen au daroana. Itzak esangurea argi dauka: Aitz aundia dagon lekua. Bizkaian zabaldu da, baiña ez larregi. Santiago'n 1684.n urtean.

Aretxeta: Fruniz'en arizti aundi bat: Diego Aretxeta: Diatxak. Bakion be etxea. Aretxak dagozen lekua da.

Areilza: Bermeo'n XIV gizaldian. Arairea izanik, atziz-ki bi-il-etatza. Baiña ariztia be izan leiteke.

Areitio: Bizkaikoa da eta ara-irelekua izan leiteke eta bedar-lekua, edo aritz-lekua. -ti- ugaritasuna da eta -o tokoa. Zaragoza'n 1826.

Areizaga: Gipuzkoa asko agertzen da. Markiña'n be bai. Aritza dagoan lekua da. Elgoibar'n 1658n. urtean.

Areso (Arezo): Gipuzkoan geien. Ara-ireia edo bedarle-kuia litzake eta -so aundi atizkia. Iratxe aundia dagon tokoa. Beste batzuk aritza'tik dakarre eta beste batzuk area'tik. Legazpian 1522.

Arespakotxaga: Elorrio'n 1468. Jauregi bat dago ber-tan.

Aresti: Elorrio'ko Zenita auzoan. Aritz asko dagon lekua da. Bilbao'n 1660 urtean.

Argatxa: Izan leiteke arga-bedar lekua ta -tza ugaritasu-na edo Arrigatxa, igoteko gatxa da aitzia. Bilbao'n ager-tzen da geien.

Argandoña: Araba'n Estibaliz-ondoan erria. Arga- bedar-lekua da eta -do- ta -ña atzizkiak. Gasteiz'en agertzen da 1520'an.

Argoitia: Ondarroa'n. Ara- irea edo arri-aitza. -Goitia goiko aldea. Bilbao'n 1721n. urtean.

Arginzoniz: Berriz'en. Arga- bedarlekua da eta -in- eta -onatoki atzizkia, -iz abizena dala adierazteko. Arrasate'n 1596.

Aritxuluaga: Gipuzkoa'n. Toki sakonean, zuloan, dagon ariztia litzake. Ondoko edo barruko etxea.

Arieta: Elorrio'ko miota auzoan iru etxe dagoz. Ireak edo bedarra dagozen lekua. Elorrio'n 1575.

Ariño: Bizkaia'n asko. Antxiñatik, gaiñera: Teruel'en 1411n. urtean agertzen da. Ireak dagozen lekua da.

Aristi: Anzuola'n etxea. Aritz-moltzoa dagon lekua da. Elgeta'n 1650n. urtean.

Arnaga: Mungia'n auzoa. Aranak dagozen lekua dala dirudi. 1654n. urtean Balladolid'en. Okaranak?

Arnaiz: Enkarterrian. Aranak dagozen lekua dala dirudi. 1654n. urtean Balladolid'en.

Arozena: Arotzaren etxea esan gura dau. Naparroa'n eta Gipuzkoa'n zabaldu da. Agertu Azkoitia'n 1669n. urtean.

Artatxo: Arteia dagon lekua. Bizkai'tik Aragoira joan ziran. Balladolid'en sarritan agertzen da. Santiago 1704n. urtean.

Artiñano: Laudio'n eta inguruetan. Arteia dagon lekua baiño ez dau esan gura. 1637n. urtean Balladolid'en agertzen da.

Arzak: Donostian agiri da 1525n. urtean. Altzak dago-zen lekua esan gura dau eta ba-leiteke iparraldetik etorria izatea. Emengo Alzaga'ren antzekoa.

Arzadun: Altza'n iru dagoz. Artza arritza da eta -dun tokoa. 1566n. urtean donostiar batek daroa abizen au.

Arzalluz: Errexil-en eta Azpeitia'n dagoz etxeak. Arritza luzea esan gura dau. Azpeitia'ko baten daroa 1570n. urtean.

OLAZAR'tar Martin'ek